

BARNETIK



USTIAPEN PEDAGOGIKOA

Josiane **Aguerre-Valencia**



Ilustrazioak: Hegoa Arregui

Zuzenketak: IKASeko lankideak

Maketazioa: Xabier Elizondo

Argitalpena: Unai Zubeldia

Argitalpen arduraduna: Aines Dufau

Legezko arduraduna: Maite Erdozaintzi-Etxart



Ordularia

Tik-tak, tik-tak,
etxeko ordulari
Tik-tak, tik-tak,
beti hor kalakari.

Tik-tak, tik, tak, tik, tak * *
Tik-tak, tik, tak, tik, tak * *

Tik-tak, tik-tak,
segundo (e)ta minutu
Tik-tak, tik-tak,
minutu eta ordu.

Tik-tak, tik, tak, tik, tak * *
Tik-tak, tik, tak, tik, tak * *

ORDULARIA

HIZKUNTZA, ALDERDI GUZIETARIK LANTZEA

IDATZIA

Idatziaren oinarrizko marrazteak handiz egitea; tresna, material, teknika eta jestu mota zenbait esperimentatzea

– Espiralak osa itzazu. (1. fitxa)

AKTIBITATE ARTISTIKOEN BIDEZ ARITZEA, ADIERAZTEA, ETA ULERTZEA

IKUSMEN EKOIZPENAK

Tresna egokiak baliatzea

– Ordularia tinda ezazu. (2. fitxa)

MUNDUA IKERTZEA

DENBORAN KOKATZEA

Egunaren mementoak kokatzea

Ttipiak/PS

- Gelan iragan mementoak izenda erritualetan eta ikusmen-euskarrietan.
- Egunaren mementoak izenda.

Artekoak/MS

- Iragaten den denboraren nozioa sumatzen has, objektuak eskukatuz.
- Gertakariak bata besteen arabera kokatzea: egunaren erritmoa (ordutegia), astea, hilabetea.

Irudiak kronologikoki biltzea

Handiak/GS

- Gertakariak kronologikoki ordena irudien bidez.

OBJEKTUAK ETA MATERIA IKERTZEA

Muntaketak egitea

Handiak/GS

- Ordularia eraiki ezazu. (3. fitxa)





